

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko otsailak 10 · 1258 zenbakia

TRADIZIOAK BADU ETORKIZUNA

10 Egun Kia.
Otsailaren 9tik 20ra

Naia Car

Apalategi aurria, 1
Elbar, Gipuzkoa
943 70 70 33

Konsumitzailearen promozioaren
baldintzak eta estatusa
www.kia.com/estatusari
Peronikako: Beharrikako,
Caucuko eta Ibilbideko
Kontsumitzailearen Lehen eta
Bigarren Enpresa Feroak.

KIA



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1.C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



AÑE MENDIA
707 Kobieta Eka.
- INMEDIATERAPIA
- KIBRO, LENTISIAK
- FISIOTERAPIA OROKORRA
- L-OROKORRA + REHABILITAZIOA
ARRAGUSTA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com



arat.
DENTISTAS DE EIBAR, CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Torres Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratclinicadental.com



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**  **Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgafiarde@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iniguez
Odontologian Lizentziatua
943 206

San Agustin Kalea, 4 beheko ezkerrean
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702896



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clínica dental
Fernán Calbetón 19-3 ed. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@egudent



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Urrian eman zitzaion hasiera Armeria Eskolan Grabatu eta Damaskinatu tailerrari, Eibarri hainbeste ospe eta aberastasun eman zion arteari buruzko ezagutzak eskaintzeko asmoz. Hogei ikaslek hartu dute parte tailerraren lehen edizioan eta, ofizioa zerotik ikasi ondoren, praktikak egiteko sasoia dute orain.



Koko-dantzak ikasi eta zapatuko ekitaldietan parte hartu nahi dutenentzat ikastaro irekiak antolatu ditu Kezka dantza taldeak. Astelehenean izan zen lehen saioa eta bigarrena atzo egin zuten, Errebal Plazan.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarterea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Umorearen mugak non dauden jakiteko nondik eta zertaz barre egiten dugun hartu behar da kontuan. Pertsona eta kolektibo askorentzat mingarria izan daitekeen umore mota baten herentzia daukagu. Zorionez, gero eta gutxiago erabiltzen da umore mota hori, baina oraindik bidea dago egiteko. Geure buruaz barre egiten dugunean, ondoan dagoena ere identifikatuta senti daiteke. Horregatik, geure buruaz egin behar dugu barre, eta egoera muturrera eramanez askotan. Besteez barre egiteari utzi behar diogu. Pribilegio hori amaiaza behar da.

ZAHIRA MONTALVO, artista eta umorista

Lesbiana orientazio sexual bezala ulertzen dugu, eta bollera da jarrera politiko bat duen lesbiana, lesbianista. Nortasunak badu bere pisua: izaera bat da, eta bizitza bizitzeko modu bat, aktiboa eta politikoa. Bollerak ohitura handia dugu bikotekide ohien edo bikotekide izatera iritsi ez diren lagunak egiteko. Sareak sortzen ditugu, eta hori beste harreman batzuetan ez da gertatzen. Bollera euskaraz nola den? Neskazale izan daiteke, baina guk bollera erabiltzen dugu. Lumatzen soropil erabiltzen hasi ginen: sor, ahizpa, eta opila. Baina eztabaida izan genuen, soropilek baduelako beste esanahi bat.

ANA JAKA, idazle eta lesbiana

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDO HARTU → Abegi ona egin, ontzat eman. “Hainbeste urtiango seme aritxalarixa gurasuak ondo hartu eben itxuli zanian”.

ONDO HAZI → WEdukazio onekoa, ondo hezitakoa. “Ume ondo hazixa, bizi guztirako irabazixa”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 11
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 12
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 13
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 14
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 15
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Imanol Alkorta Aizpurua.** 89 urte. 2023-02-01.
- **Angel Maria Moreno Sanchez.** 65 urte. 2023-02-01.
- **Alberto Alberdi Agirre.** 90 urte. 2023-02-01.
- **Marco Antonio Perello Pizarro.** 48 urte. 2023-02-04.

Jaiotakoak

- **Oian Villena Ferrero.** 2023-01-13.
- **Adam El Kanfoudi Caiña.** 2023-01-27.
- **Elaaf Noor Sufyan Abid.** 2023-02-02.
- **Irai Romarate Gandia.** 2023-02-03.



Martxan dago Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotzeko lehen igogailua

Astelehen goizean ipini zuten martxan Ubitxa San Kristobalekin lotzeko egingo diren bi igogailuetako lehena. Ubitxako 2. eta 4. zenbakien artean (Potosioneko tailer zaharretan) dago sarrera eta igogailuak bi geralderekin, proiektuan aurreikusita dagoen bigarren igogailuarekin lotzeko pasarela gain. Lehen igogailuarengatik 704.770 euro ordainduko dira, baina proiektu osoak eskatzen duen inbertsioa 1.523.106 eurokoa da (1.249.605 euro Europako Next funtsekin ordainduko dira).



Zaldibarko auzian ardura politikoak hartzeko eskaera berretsi dute herritarrek

Astelehenean, otsailaren 6an, bete ziren hiru urte Zaldibarko zabor-tergia amildu eta Alberto Soluluzze eta Joaquin Beltran langileak hil zirela, eta gertatutakoa oroitzeko omenaldia egin zen domekan, Zaldibarko Eitzaga auzoan, hondamendia izan zen tokitik oso gertu, Zaldibar Argitu herritarren plataformak antolatuta. Bertan bildutakoek berriz ere nabarmendu zuten hiru urteren ostean auzia

oraindik ere argitzeke dagoela eta, salatu zuten, “ardura politiko zuzenak izan arren, inork ez ditu bere gain hartu”.

Horrez gain, bilaketa lanak aspaldi bertan behera lagatzeko erabakia hartu bazuten ere, Joaquin Beltranen gorpurik ez dela aurkitu ere ekarri zuten gogora, eta plataformako kideek azpimarratu nahi dute “iluntasun honetan guztian argia bilatzen” jarraituko dutela.

Mendebaldeko Saharari buruzko zikloa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak

Arrate Kultur Elkarteak, Eibar-Sahara Elkartearekin elkarlanean, Mendebaldeko Saharari buruzko zikloa prestatu du eguaztenerako, 18:30ean elkartearen lokaletan. “Giza eskubideak Mendebaldeko Saharan. Ahaztutako auzi bat” izenburuari jarraituta, Said Dambarren “Hilketa baten kartelak” ikus-entzunezkoa eta Mundubat Fundazioaren “Okupazioa S.A” dokumentala ikusi ahal izango dira.

Jarraian, Said Dambarren “Verdad y Justicia” eta “Las imágenes del silencio” (Verde y Negro. Sáhara) liburuak auziari buruzkoak dira eta, amaitzeko, solasaldia egingo da Dambar familiaren izenean parte hartuko duten Salamo Mohamed Salem eta Khalil Dambarrekin, eta Francesc Verdugo Ibarz bi liburuen eta ikus-entzunezkoen egilearekin. Bestalde, Irigoienek Saharako argazki erakusketa dago ikusgai.





"Berrerabili berrasmatu" tailerretarako aurrematrikula zabalik

Udaleko Ingurumen Sailak 'Berre-rabili eta Berrasmatu' tailerren hirugarren edizioa jarriko du martxan martxoaren 4an. Helburua eguneroko objektuak eta materialak konpontzen, berrerabiltzen, birziklatzen eta berrasmatzen ikastea da, "haien bizitza luzatzeko eta hondakin-kopurua murrizteko". Hirugarren edizioan hamar tailer egingo dira herriko denden eta erakundeen laguntzarekin, eta bertan parte hartzeko aurrematrikula gaurtik aurrera egin daiteke. Informazio gehiago jasotzeko ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 84 08 telefonora deitu daiteke



Trenen maiztasuna areagotzeko sinadurak

"Trenak 30 minuturo" trenen maiztasuna areagotzeko sinadura bilketa egiten ari dira eta, sinatu nahi duenak, Guridi, Buenos Aires, Baisi eta Errebal plazako tabernan aurkituko ditu horretarako orriak. Sinadura guztiekin Euskotreneira joko dute, eskaera luzatzeko.

Zaporeak erronkaren aurkezpen publikoa egingo dute astelehenean Untzagan

Aurten ere janaria eta dirua biltzeko erronkari eutsiko diote Zaporeak elkartekoek, Greziako erre-fuxiatuei egunero otordu duin bat eman ahal izateko. Horretarako astelehenean ekimena aurkeztuko dute Untzagako jubilatutuek, 19:00etan, eta herritar guztiak bertara gonbidatu nahi dituzte. Egun horretan aurkeztuko dituzte salgai ipiniko dituzten errifak ere. Oraingoan afari bakoitza Eibarko Artisten Elkarteko kideek doan eman duten lanei lotuta, joango da: Elisabet Eguren, Javier Allende, Mauri Martin, Santi Entrena, Cristina Azpiri, Maite Zangitu Arana,

Esteban Oroz Aizpun eta Esther Galarza artistek emandako artelanak aurkezpen egunean bertan jasoko dituzte.

Horrez gain, elkarteari laguntzeko bazkideak behar dira eta kanpaina abiatu dute. Euro baten truke bazkari duin bat egin dezaketela gogorazi nahi diote jendeari. Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880) edo, bestela, www.zaporeak.eus webgunearen bitartez.

Presidente berria dauka Ekingune elkarteak

Ekingune ekintzaileen elkarteak presidente berria dauka: Elena Guisasola kiropraktikoak hartu du azken bi urteotan Leire Berasaluzek bete duen tokia elkartearen, bera ordezkatzuz. Presidente berria Ekinguneko bazkide gazteenetako bat da.





Emakume zientzialarien lana ezagutzera emateko tailerrak eskainiko dituzte gaur

Otsailak 11 'Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna' dela eta, Udalak hiru tailer antolatu ditu gaurko. Ekonomia-Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren eskutik egingo diren tailerrak 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude eta Errebalgo plaza zentilari egingo dira, 17:00etatik 19:00etara. Antolatzaileen berbetan, "tailerrak dibulгатiboak eta praktikoak izango dira, eta haietan

hainbat emakume ikertzailearen bizitza eta obra nabarmenduko da". Horretarako, hiru emakume zientzialariaren ikerketetan oinarritutako prototipoak diseinatu dira, kimika, fisika edo zinematika bezalako printzipioak erabilia. Tailerrak Itzamna akademiakoek emango dituzte, eta haur bakoitzak tailer batean, bitan edo hirutan parte hartu ahalko du. Ez da behar izena aurretik ematea.

Canon dendako langileak greban daude, lan baldintzak hobetzeko borrokan

Otsailaren 1az geroztik, Urtzaile kalean dagoen Canon Eibar dendan greban daudela jakinarazi du LAB sindikatuak, "beraien lan baldintzak hobetzearen alde. Langile hauei Gipuzkoako metalaren merkataritzako hitzarmena aplikatzen zaie eta 2008. urtetik ez dira bertako lan baldintzak eguneratu: urteko lanaldia, soldatak, baimeak...". Hori dela eta, iazko azaroaren amaieran langileek enpresaren arduradunari proposamen bat aur-

keztu zioten, eta bertan lan-ordu murrizketa eta soldata igoerak eskatu zituzten, baina sindikatuak dioenez enpresaren erantzuna ezezkoa izan zen: "Ordu murrizketarik ez (soilik lanaldi murrizketa, honek dakartzan ondorioekin) eta inondik inora nahikoa ez den %3ko soldata igoera". Hori ikusita, langileek greba mugagabea hasia erabaki zuten, LAB sindikatuaren babesarekin. Irtenbidea eman arte borrokan jarraitzeko prest agertu dira.

2'5 milioi euroko zuzenketak aurkeztu ditu Elkarrekin Podemos-ek

Elkarrekin Podemos udal taldeak 2'5 milioi euroko inbertsioa eskatzen duten zuzenketak aurkeztu dizkio udal gobernu taldeak proposatutako 2023ko aurrekontu zirriborroari. Besteak beste, hauek nabarmendu ditu Isabel Fernandez Pejenaute taldeko bozeramaileak: eraikin publikoetako garbitasun-zerbitzuaren kudeaketa Udalak bere gain hartzeko eskaera, langile horien lan-baldintza duinak bermatzeko; bertoko landare eta zuhaitzak landatzeko eskaera, inguruko basoetan eukaliptoak hedatzen jarraitzea saihesteko; gazteei beraien premiak zeintzuk diren zuzenean galdetzea ere eskatu dute; eta herrian dauden parke publikoak konpon ditzatela



Kontsumitzaileen bulegoa zabaldu dute berriz

Aste honetan zabaldu ditu ateak berriz ere udaletxearen beheko solairuko Kontsumitzailearen Informazioarako Udal Bulegoak (KIUB). Ohiko zerbitzuak emango dituzte bertan eta jendaurreko ordutegia hau izango da: astelehenetik barriak, 09:00etatik 14:00etara. Kontsultak posta elektronikoz egiteko aukera ere badago, omic-kiub@eibar.eus helbidera idatzita. Udal-zerbitzua ematen duen bulegoak Kontsumobiderek (Kontsumoko Euskal Instituta) koordinatuta eta lankidetzan dihardu.



Sanblasak bedeinkatzeko ohiturari eutsi zaio

Aurreko barixakua San Blas eguna izanik, ohiturari jarraitu zioten eibartar askok aurten ere, eta goizetik herriko eliza gehienetan egin ziren ospakizunetara joan ziren, sanblasak bedeinkatzera. San Andres parrokian 11:00etan egin zen ospakizunean jendetza batu zen eta, Pedro Laskurain parrokoak opilak bedeinkatu ondoren, Arrateko Amari kantuan amaitu zen elizkizuna. Irteeran, aspaldiko partez, ilara luzea osatu zen eliza parreko eskulturekin argazkia egiteko.



NOLA SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZTEN?
LAGINDU BEZAKESU

KONPONDU, BERRERABILU, BIRBIZTUTU ETA BERRASMATU

TAILERRAK "BERRERABILI ETA BERRASMATU"

Izena emateko epea: Otsailak 10 - Otsailak 21

Oinarriaren zerrrenda argitaratzeko eguna: otsailak 24

Gehienez 3 tailer pertsonako.

Aurrematrikala: Pagaratu edo

<https://formulariak.eibar.eus/eu/berrerabiletaberrasmata>

+ KATALOGOA

- BIZIBERRITU ZURE ALTZARI ETA DEKORAZIO OBJEKTUAK: marboak 4 eta 11 / 10:30 - 13:30
- ETXeko OINARKIZKO KONPONKETAK: ITURGINTZA: marboak 7, 14, 21 eta 28 / 17:00 - 19:00
- APROBETXAMENDUZKO BUKALDARITZA: marboak 15 / 18:00 - 20:00
- DECOUPAGE: ERALDATU ZURE ARROPA ETA OSAGARRIAK: marboak 18 / 17:00 - 19:00
- KONPONDU ARROPA MODU ERKAZ ETA POLITEAN: marboak 25 / 11:00 - 13:00
- SORTU ZURE HIRI-BARATZEA: apirilak 19 eta 26, maiatzak 3 eta 10 / 17:00 - 19:00
- TAPIZATU ETA ESTREINATU: ZAHARRERIK BERRORA: apirilak 22/ 10:30 - 13:00
- IKASI ZURE BIZIKLETA KONPONENTEN: maiatzak 2 / 18:00 - 20:00
- PANKARTATIK POLTSARA: maiatzak 6 / 16:30 - 19:00
- EMAN BESTE ERABILERA BAT ONTZI ARINEI: maiatzak 13 / 11:00 - 13:00

Eibarren 774 emakume gehiago daude gizonak baino

Udaleko Idazkaritza Estatistika Atalak eskainitako datuen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean gure herriak 27.264 biztanle zituen, euretako 14.019 emakumezkoak eta 13.245 gizonetzko. Datu horiek erakusten dutenez, azken urteotako bidetik doaz gure herriko datu demografikoak eta, horrela, urtetik urtera Eibarko populazioa gutxitzen doala ikusi dezakegu. 2022an 27.330 biztanle zituen herriak, orain baino 66 gehiago. Gauza bera gertatu zen iaz 2021. urteko datuekin parekatuz: urte horretako 27.566 biztanleen kopuru handiagoan jaitsi baitzen, 236 lagunetan. Eta 2020an, orain dela hiru urte, 27.848 biztanle ginenez, 2021ean ia 300 lagunetan jaitsi zen, 282 biztanletan hain zuzen.

Aurtengo datuak, bestalde, adin-taldeka eta generoaren arabera banatzen hasiz gero, honako emaitzetara garamatzate. Jaio berritik 25 urte arterakoak 6.468 dira (populazio guztiaren %23'72), euretako 3.314 gizonetzko eta 3.154 (160 gutxiago) emakumezko. 25 urtetik 50 urtera arteko lagunak 8.355 dira (populazio guztiaren %30'64), eta hor ere gizonetzkoak gehiago dira emakumeak baino, 215 laguneko aldearekin: 4.285 batzuk eta 4.070 besteak. 51 urtetik 65 urtera arteko tartean (populazio guztiaren %24'25) emakumezko gehiago aurkituko dugu gizonetzkoak baino, gutxiatik bada ere (61 gehiago): hor emakumeak 2.941 dira eta gizonetzkoak 2.880. 66 urtetik gorako kasuan (populazio guztiaren

%24'27) gauzak guztiz aldatzen dira eta emakumezkoen kopurua gizonetzkoena baino askoz handiagoa da: 3.854 alde batean eta 2.766 bestean, hau da, azken hauek 1.088 gutxiago dira. 100 urtetik gorako zazpi biztanle ditugu Eibarren eta, jakina, emakumeak nagusi dira behin muga hori zeharkatuta: gizon bakarrarekin dozena erdi emakumez gainditu dute mendeurrena.

77 herrialdeetatik etorritakoak

Gurera etorritakoei erreparatu, gutzira 2.916 lagun daude, apatriadak barne: euretatik 1.495 gizonetzkoak dira eta 1.421 emakumeak. Populazio guztiaren %10etik gora, beraz. Hona hemen herrialdeka eta, bakoitzetik, zenbat emakume eta zenbat gizon diren adierazita:

965 Maroko (425/540)	26 Ekuador (10/16)	5 Eritrea (2/3)	1 Benin (0/1)
260 Kolonbia (141/119)	23 Britainia Handia (11/12)	5 Errusia (4/1)	1 Bielorusia (1/0)
243 Nikaragua (161/82)	23 Ukraina (14/9)	5 Kamerun (1/4)	1 Bulgaria (0/1)
165 Venezuela (82/83)	17 El Salvador (8/9)	5 Palestina (2/3)	1 Costa Rica (1/0)
124 Pakistan (47/77)	16 Mali (5/11)	4 Bosnia-Herzegovina (2/2)	1 Finlandia (1/0)
121 Senegal (23/98)	15 Italia (7/8)	4 Ekuatore Ginea (2/2)	1 Gambia (0/1)
108 Dominikar Errepublikak (55/53)	14 Kongo (-DR)- (10/4)	4 Zeelanda Berria (4/0)	1 Ghana (1/0)
83 Brasil (53/30)	14 Mexiko (10/4)	4 Uruguai (2/2)	1 Hegoatlantika (1/0)
81 Portugal (29/52)	11 Paragwai (7/4)	3 Angola (3/0)	1 Herbehereak (1/0)
67 Honduras (50/17)	8 Nepal (3/5)	3 Japonia (1/2)	1 Kanada (0/1)
58 Errumania (31/27)	7 Boli Kosta (2/5)	2 Australia (1/1)	1 Polonia (0/1)
45 Nigeria (18/27)	7 Estatu Batuak (2/5)	2 Burkina Faso (0/2)	1 Sudafrika (1/0)
44 Aljeria (22/22)	7 Frantzia (4/3)	2 Filipinak (2/0)	1 Suedia (0/1)
44 Kuba (19/25)	7 Mauritania (4/3)	2 Guatemala (2/0)	1 Tailandia (1/0)
41 Boliwia (22/19)	6 Afganistan (3/3)	2 Ginea (0/2)	1 Togo (0/1)
35 Peru (20/15)	6 Alemania (3/3)	2 India (1/1)	1 Tunez (1/0)
32 Txina (17/15)	6 Bangladesh (4/2)	2 Irlanda (2/0)	1 Yemen (0/1)
28 Albania (10/18)	6 Kongo (3/3)	2 Kroazia (0/2)	35 Apatriadak (20/15)
28 Argentina (18/10)	6 Txile (3/3)	2 Siria (2/0)	2 Hameman diplomatikorik gabeko herrialdea (1/1)
	5 Egipto (2/3)	1 Belgika (0/1)	



Marokorak dira, alde handiarekin, nagusi atzerritik etorritakoen artean: handik etorritako ia mila lagun bizi dira gurean. Euren atzetik, Amerika erdialdeko hiru herrialdeetatik etorritakoak nagusitu dira azken aldian: Hegoamerikako Kolonbia eta Venezuelarekin batera, Ertamerikako nikaraguarak ere pisua hartzen doaz Eibarren, Dominikar Errepublikatik etorritakoein batera. Hala ere, azken horiek baino gehiago dira Ekialdeko Pakistanetik eta Afrikako Senegaletik Eibarrera etorritakoak.



ENRIKE SOSOLA

Gaztainondo, eskerrik asko

Zorretan gaude arbola paregabe honekin. Erromatarrek ekarri zutenetik, 2.000 urtetan, hori da hori emana. Eta zein ordain eskasa jaso duen gure aldetik. Eibartarrok ere gaztainondoarekin harreman luzea dugu. Aspaldikoa da gure arteko erlazio asimetrikoa. Gaztainondoaren kultura barru-barruraino sartuta izan dugu atzora arte: mintegiak jarri genituen gaztaina-landareak sortu eta gero mendian sartzeko; ondoren, txertatu hainbat mota desberdinekin, goiz eta beranduko fruituak izan ahal izateko; inausi, inguruko sasiak moztu eta gaitzak erasaten zuenean erremedioak bilatu genituen, ezinbestean, gosearen beldur. XX. mendean, industrializazioarekin, lagunartekoa amaitu zen arte, kitto!

Eta berak honela erantzun zigun:

Hutsegiten ez duen zuhaitza da gaztainondo, sikate zein uretan oparo, uzta ziuerra da beti hankabikoa eta azienda elikatzeko. Gainera, neguko hotza arintzeko gutxi dira su-egur biziagoak, txinparta-soinu alaiatz, etxea berotu edota garai bateko ikatz-txondorrek hornitzeko baliatzen zuten arbasoek.

Etxegintzan, Eibarko etxe zaharrik ba ote da gaztainazko haberik, kaperiorik eta oholik gabe? Ezetzean nago. Lehortzean zur gogor eta aldi berean lantzeko gozoa, samurra, gizen-bakoa baita. Eta usaina ere ederra. Egin usain! Eta zenbat eibartar jaio ote dira gaztainazko ohean? Auskalo.

Ezin ahaztu lanabesetako kerten eta baserriko tresnak egiteko material arin eta aldi berean horren ustelezenik nekez aurkituko dugula besterik. Plastikorik gabeko garaietan gaztainondoaren zuntzekin eginiko otar eta saskirik gabe zelan biziko ginateke? Nekez.

Onddo eta perretxiku ugari eskaintzen duen basoa da gaztainadia. Eta, zelan ez, urteroko orbela eta lokotz jarioak lurrari kendutakoa itzuliko dio eskuzabal, honen emankortasuna hobetuz eta iraunkortuz. Eta, esan gabe doa, biodibertsitate aberatsaren gordailu dela gaztain-arbola, bere enbor barruhustuak piztien aterpe eta hainbat hegaztiren kabi-leku.

Bistan da eman-zalea dela gaztainondo, emankorretan txapeldun. Ez al du aitormena jasotzea merezi? Dagokion gorazarrea?

Baietzean nago. Merezimendu gutxiagokoak ditugu kale-izendegian. Edota zergatik ez, landa dezagun ale ederren bat errotonda edo diseinuzko gure lorategiren batean bere plakatxoarekin. Hala ere, nik beste hau nahiago:

Berreskura dezagun gaztainondoaren kultura. Landa ditzagun gaztainadi berriak, gaztain-mota desberdin eta teknika gaurkotuekin. Mesedea eta onura baino ez die ekarriko gure ekonomia, ingurune eta kulturari. Eta zor historiko bat kitatzeko modua izango dugu.

"Bistan da eman-zalea dela gaztainondo, emankorretan txapeldun. Ez al du aitormena jasotzea merezi? Dagokion gorazarrea?"



Enpresari izateko ikasten. EKHIBELAR

Tradizioaren haria ez da eten

Ikusi bideoa



Armagiñak elkartearen ekimenez eta Eibarko Udalaren laguntzarekin eman zitzaien hasiera urrian grabatu eta damaskinatu tailerrari Armeria Eskolan. Harrezkero, 20 lagun ibili dira gure herriari "hainbeste ospe eta aberastasun eman zion arteari buruzko ezagutzak jasotzen", antolatzaileen berbetan.

Lehenengo hilabeteetan grabatuari eta damaskinatuari buruzko teoria jaso ondoren, praktikak egiteko sasoa dute orain ikasleek. "Zerotik hasi dira", esan digu Alberto Etxaluze grabatu eta damaskinatu tailerraren koordinatzaileak. Horrela, materiala, erremintak, teknikak eta bestelako gauzak ikasi behar izan dituzte, baina goi-mailako irakasleak eduki dituzte horretarako.

Ofizioa Maria Asun Noguesen eta Armando Madinabeitiaren eskutik ikasi duen Gorka Garate da tailerraren irakaslea, eta ikasleek Juan Luis Baroja Collet Debako Arte Eskolako kidearen eta Javier Lopez Goñi grabatzailearen aholkuak jaso ahal izan dituzte ibilbidean zehar. "Ohore handia da Javier bezalako grabatzaile bat hona etortzea", diosku Etxaluzek. "Gainera, Baroja Colletek eta Lopez Goñik ere euren jakintzak gogorarazi ahal izan dituzte ekimen honen bitartez", gehitzen du.



Lopez Goñirentzat grabatua dena izan da bere bizitzan. “Hori barik, hil egingo nintzateke”, aitortu digu. Bere koadernoan benetako maisulanak diren marrazkiak ditu, gero grabatuak egiteko plantilla moduan erabiltzen direnak, eta bere lanak mundu guztian zehar daude sakabanatuta. Pertsona ospetsu askorentzako egin ditu piezak, baina espreski bat ez egitearen arantza geratu zitzaion. “Enkargu bat jaso nuen, baina ez zidaten esan norentzat izango zen eta, gora eta behera ibili ondoren, egin barik geratu zen. Ba Fidel Castrorentzat zen! Jakin banu, egin izango nion. Nire idoloa zen!”, diosku.

Zerotik ikasten

Materialak ezagutu ondoren, damaskinatua lantzeari ekin zioten ikasleek. “Klasean egindakoa amaitzerakoan, piezak euren etxeetan lantzen zituzten eta martitzenetan etxean egindakoren inguruan jarduten genuen”, azaldu digu Etxaluzek. Horren ondoren, grabatuari ekin zioten. “Javier Lopez Goñiren eskutik jaso zituzten klaseak eta, marrazki eta eredu batzuetatik abiatuz, ikasleek grabatzen ikasi dute”, gehitzen du.

Lan horiek egiteko behar den materiala lortzea ez da batere erraza eta jendearen donazioak jaso dituzte aurrera egin ahal izateko. “Grabatzaile-bola lortu ahal izan dugu eta beste material batzuk erosi egin behar izan ditugu, baina batzuk eman egin dizkigute (xixelak, mailuak...). Armeria Eskolakoek gauza batzuk laga dizkigute”, diosku Etxaluzek.




Ikasitako teknikak praktikan jartzen dihardute gaur egun ikasleek. EKHI BELAR

>>> Ikastaroak jarraipena edukitzeko asmoa du Armagiñak elkarteak eta, gainera, armagintza-ikastaroa antolatu nahi du

Herriko ondarea

Ikastaroaren antolatzaileak pozik daude ekimenak jaso duen erantzunarekin eta jarraipena eman nahi diote. “Dirulaguntzen zain gaude, baina erdi-mailako ikastaroa antolatzea da gure asmoa”, Etxaluzeren berbetan.

Grabatua eta damaskinatua herriko ondareak dira, urteen poderioz galtzen joan den legatua. Horregatik, tradizioari eutsi eta berpizteko asmoz, Armagiñak elkarteak indarra eman nahi dio



Juan Luis Baroja Colleten aholkuak jaso dituzte Grabatu eta Damaskinatu Tailerreko ikasleek. EKHI BELAR

ikastaro honekin hasitako mugimenduari. Etxaluzek azaldu digunez, “hemen parte hartzen dutenek grabatu enpresaren batean lan egiten hasia da gure asmoa, baina trebetasun handia behar da horretarako eta ordu asko sartu behar dira”.

Horrez gain, armagintza-tailerra egitea ere proposatu dio elkarteak Udalari. “Armagintzaren industrian dauden hutsuneak betetzea da proposamenaren helburua, eta badaude formazioa eskaintzeko prest agertu diren enpresak eta ikasi nahi duten bost ikasle ere bai”, Etxaluzek esan digunez. “Armagintzako enpresa bi ixteko zorian daude, arduradunak erretiratu egin behar direlako, eta prest daude euren ezagutzak ikasle berri hauei eskaintzeko enpresek jarraipena izan dezaten. Herriko ondarea da eta ezin dugu desagertzen utzi”.

Herritik sortutako ekimen hauez gain, kanpotik ere etorri dira grabatua eta damaskinatu babeste-

>>> Zumaiako elkarte batek Eibarko damaskinatua altxor bizi bezala izendatua izateko eskaera egin nahi du UNESCOn

ko laguntzak. “Zumaiako elkarte batek Eibarko damaskinatua altxor bizi bezala izendatua izateko eskaera egin nahi du UNESCOn”, kontatu digu Etxaluzek. “Angel Edok egindako bideoa dugu eskuetan eta eskakizun hori ondo prestatzen dihardugu”.

Trebezia eta pazientzia

Armeria Eskolan egin dugun bisitan Usua Anitua eta Mikel Elorza


ikasleekin egin dugu topo. Biek ala biek harremana dute diseinu kontuekin profesionalki. “Eurekin batera dabil, gainera, Ander Arroitojaregi luthieria”, diosku Etxaluzek. “Euren lanari balio erantsia eskaintzen die hemen ikasitakoak, eta beste ikasle batzuentzat zorrak kitzateko modu bat izan da. Adibidez, Zuloagatarren lanak maite dituen neska bat etorriko da orain damaskinatua egiten ikastera”, gehitzen du.

Zailtasuna handia izanik, Elorzarentzat errazagoa da grabatua egitea damaskinatua baino. “Grabatua materiala kentzea da eta damaskinatua materiala gehitzea. Hasieran frustragarria zen, gauzak berehala egitera ohituta gaudelako. Demaseko pazientzia behar da ikasteko”, esan digunez.

Lan fina egiten dute bai berak bai Anituak eta arreta handiz entzuten dituzte Baroja Colleten eta Lopez Goñiren aholkuak. Eskuetan dute herriko tradizioaren etorkizuna.

Aurten Aratosteak betiko koloreekin ospatuko ditugu

Aurreko barixakuan aurkeztu zuten udaletxean aurtengo Aratosteetarako antolatu duten egitaraua, jaiak iragartzeko aukeratu duten kartelarekin batera: Bartzelonako Abel Floridoren "Por fin llegó la fiesta" izenburuko lana. Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Kultura zinegotziak eta Asier López de Viñaspre teknikariak eman zuten jardueren berri eta, nabarmendu zuten, murrizketak atzean lagata ospatuko ditugu aurten Aratosteak.



Aratosteetako lehen ospakizuna bihar bertan egingo da, Kezka dantza taldekoen eskutik. Goizean goizetik ekingo diote egunari koko-marru, koko-dantzari eta gainontzeko pertsonaia ezagunek, koko-eskean ibiltzeko: "Partehartzaileak Errebaleen bilduko dira 08:30ean, betiko moduan lehen agerraldia merkatu plazara joandako baserritarren aurrean egiteko. Eta, ondoren, 09:00etatik 15:00etara, Gorosta eta Mandiola auzoetan ibiliko dira, baserriz baserri".

Aurtengo ibilbidea eta gutxi gorabeherako ordutegia hau da: Amazabalei Abeletxia (09:15), Amazabalei Asolaldia (09:30), Amazabalei Goikua - Amazabalei Behekua (09:45), Pagei Abeletxia (10:45), Ixua jate-txea (11:30), Usartza (12:15), Akondia (12:30), Berretxina Behekua (13:00) eta Iturrua Goikua - Iturrua Azpikua (13:45).

Arratsaldean, berriz, herriko kaleetan ibiliko dira kalejiran. Errebaleen elkartuko dira koko-mokoak 19:00etan eta, bertan lehen koko-dantzak eta kantuak eskaini ondoren, Mauxitxa txarangak lagundutako kalejira hasiko da: Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Plaza Barrian kantuan eta dantzan ibili eta gero, azken koko-dantzak eta kantuak Errebaleen egingo dituzte, 21:00 aldera.



Koko-marruak Gorosta eta Mandiola auzoetako baserrietara joango dira koko-eskean bihar goizean. FERNANDO RETOLAZA

Aurten jaiak murrizketa barik ospatzeko moduan izango gara eta, iluntzean herriko kaleetan egingo den kalejiran jendea dantzan egitera animatu nahi dute eta, horretarako, aste honetan jendeari dantzak irakasteko bi saio ireki egin ditu Kezka dantza taldeak Errebal Plazan. Horrez gain, norbait azken momentuan animatuz gero, dantza ezberdinen inguruko bideo-tutorialak ikus ditzake dantza taldearen Instagram kontuan.

Eguen Zuriko eta Kaldereroen kalejirak bueltan

Pandemiaren eraginez azken urteotan bertan behera laga behar izan diren jarduerak berriz egingo dira aurten. Horrela, datorren astean ospatuko den Eguen Zurian, berriz ere herriko ikastetxeak izango dira protagonista, bazkalostean herriko erdialdean egingo duten kalejirarekin. Eibarko ikastetxe gehienek hartuko dute parte eta 15:15 inguruan hasiko da. Ondoren, 17:00etan, betiko kalejira egingo da Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin, Urkizutik Untzagara. Gainera, Lisker taldearen eskutik, erromeria egingo da, 17:00etatik aurrera, Errebalen. Eta ordu horretan hasita eta 19:00ak arte, makillaje eta maskara tailerrak egingo dira Errebalen bertan, Astixaren eskutik.

Eta hurrengo egunean, Barixaku Erregularrean, kaldereroen kalejira egingo da, 20:00etan Urkizutik abiatuta. Osasun egoerarengatik azken urteotako parte-hartzea txikiagoa izan bada ere, oraingo honetan lehen-gora itzuliko da ekitaldia eta ohiko talde guztiek hartuko dute parte: Kezka dantza taldea, Txolarte, Ustekabe txaranga, Juan Bautista Musika Eskolako trikitilariak, Lagun Taldea, Untzagako jubilatuen etxeko

**Goizean baserrietan
ibili eta gero,
19:00etan elkartuko
dira koko-mokoak
Errebalen, handik
hasita herriko
kaleetan kalejira
egiteko**

Koko-dantzen entsegua
bideoan ikusgai





Barixaku Erregularrean izango da Kaldereroen kalejira eta pregoia Errebalen irakurriko du Julen Leturiondo musikariak



Aurten ez da karparik ipiniko eta jarduera asko Errebalen egingo dituzte, bertako plaza estalian.

korua, Kaleetan Kantuz taldea eta Adolfo Jainagaren trikitilari eskolak. Eta kaldereroen kantu eta dantzekin herriko kaleak alaitu ondoren, Aratosteetako pregoia irakurriko da Errebalen, 20:30ean, ...eta kitto! Eus-kara Elkartearen eta Kezka dantza taldearen ekime-nez. Aurtengo Aratosteetarako pregoilaria Julen Leturiondo musikaria izango da. Bestalde, barixakuan bertan, ondoen apaindutako taberna-lehiaketarako izena eman duten establezimenduetatik pasatuko da epaimahaia (izen-ematea ere egun horretan itxiko da, Udalaren web orrian), irabazleak aukeratu eta sariak banatzeko.

Koadrilen kalejira eta lehiaketa Aratoste Zapatuan

Eguerdian hasiko dira Aratoste Zapatuko ospakizunak: 12:30ean kaleko rock emanaldia eskainiko du Rockalean taldeak. Eta ordu berean hasiko da koadrilen desfilea, Ustekabe fanfarreak lagunduta. Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxeberria eta Toribio Etxebarria kaleetan zehar ibiliko dira parte hartzeko izena ematen duten taldeek (**izen-emateak otsailaren 16ra arte egin daitezke**, Udalaren web-gunean). Bestalde, 12:30etik 14:30era, photocalla egongo da Untzaga plazan. Arratsaldean, 18:00etan, koko-jantzi lehiaketa egingo da Galiziako Etxean. 19:00etan, kaleko animazioa hasiko da, Rock Brass Band taldearekin; era berean, 19:00etatik 21:00etara, umeentzako berbena egingo da Errebalen, Luhartz taldearekin; 19:30ean, Errebal Plazia eraikinean, koadrilen desfilearen, kartel-lehiaketaren eta ondoen apaindutako tabernen sariak emango dira; 19:00etatik 21:00etara, photocall-saio berria egingo da Errebalen; eta 23:00etatik 01:00etara, dantzaldia hartuko du Errebalek, Luhartz taldearekin.

Musika eta playback lehiaketa domekarako

Bestalde, Aratoste domekan Usartza txistulari taldeak kalejira egingo du, 11:00etan. Arratsaldean, 17:00etan, LHko 5. eta 6. mailetako ikasleentzako playback lehiaketa egingo da, ... eta kitto!-k antolatuta, eta 18:30ean Arno DJ-a arituko da jarraian. Biak Errebal Plazan izango dira. Eta Aratoste Martitzenean amaituko dira jaiak, Errebalen: umeentzako jolasak egingo dira (17:00etatik 18:30era); sardina 'txikiaren' hileta, Jainagaren trikitilariekin (18:30); eta umeentzako diskoteka, Arima Cool Tourrekin (19:00etan).

Santa Agedari eskainitako koplak kantatzera irten ziren zapatuan

Santa Ageda bezperan koplak kantatzeko ohiturari eutsi nahi izan diote Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolakoek eta, asmo horrekin, bi kalejira egin zituzten zapatuan. Arratsaldeko lehen orduan egin zuten lehena, Musika Eskolan ikasten duten haurrek osatutako abesbatzarekin eta trikitilariak lagunduta, Arraten hasi eta, Orbetik behera, Urkizuraino. Eta bigarrena iluntzean abiatu zen Untzagatik. Horretan, Musika Eskolakoekin batera, Kaleetan Kantuz-ekoak eta Sostoa Abesbatzakoak ere ibili ziren, Marisol Arrillagarekin ikasten duten trikitilariak lagunduta.

ARGAZKIAK: EIBARKO MUSIKA ESKOLA



UniEncounter, informatika eta teknologia berriak borborka

Otsailaren 17 eta 18an informatika eta teknologia berriein zerikusia duen UniEncounter topaketa bueltatuko da Eibarko UNira. Mahai-jokoak, bideojoko txapelketak, tailerrak, hitzaldiak... eta berritasun ugari antolatu dituzte aurten. UNiko ikasleek antolatutako ekitaldia izan arren, sarrera irekia da eta ikasle ez direnek ere hartu dezakete parte. Informatika eta teknologia berriak maite dituzuenok ez daukazue aitzakiarik. Animatu zaitezte!

Teknologia berrien eta informatikaren inguruan urtero egiten den topaketa da UniEncounter. Eibar-ko UNIan egiten da eta normalean Aratosteekin koinziditzen du. Orain dela 19 urte hasi ziren UNI Eibar-Ermuko ikasle eta irakasleek elkarlanean antolatzen, eta helburu zehatza du: "Gure inguruan informatika zaletasuna zabaltzea; horretarako, gai serioagoak eta hitzaldiak ekintza ludikoekin batera uztartzen ditugu", esan digu antolaketa lanetan buru-belarri dabilen Gorka Guenaga informatika irakasleak. Apurka-apurka ekosistema bat sortzea eta indartzea da helburua.

Elesky pianojole eta 'streamerra' entzuteko aukera egongo da barixaku arratsaldean (otsailak 17) UNiko antzokian, guztiz doan, eta, ondoren, Alex Robleño eibartarrak Koreara egin zuen bidaiari egindako "El Corazón de los Esport" dokumentala ikusteko aukera paregabea izango da. "Korean oso aurreratua

Berritasunen artean, aurten, lehen aldiz, K-POP txapelketa egongo da antzokian

daude bideojokoaren inguruko saltsa guztietan eta bertan ikusi eta ikasi zuena azalduko digu Alexek", aurreratu digu Gorkak.

Egitaraua, beraz, barixaku arratsaldean hasiko da eta, beste urte batzuetako esperientzia ikusita, arratsaldeko 20:00ak bitartean jendea bere ordenagailuarekin agertzen joango da UNira. LAN PARTYra joaten dira eta egun (eta gau) osoa pasako dute UNIan euren eta besteen ordenagailuekin "dantzan". Jokoak ere izango dituzte, bai mahai jokoak, bai elektronikoak (bideojokoak). "Bideojokoaren inguruan zenbait txapelketa antolatu ditugu: 5 5i partidak, 2 biri, 3 hiruri, buruz buru... Joko ezberdinak orduetegi ezberdinekin. UNIan ditu-

gun ikasleei gustuko bideojokoaren zerrenda bat egiteko esan diegu eta horien gainean dira txapelketak", dio Guenagak.

Zapatu goizean (otsailak 18) hitzaldi "serioen" txanda izango da: segurtasun informatikoa, adimen artifiziala, Googlera lanera doan UNiko ikasle-ohi baten esperientzia...

K-POP dantza txapelketa

Eta beste berritasun bat. "Zapatu arratsaldean, sari-banaketa aurretik, finalak izan ohi dira. Baina aurten, lehen aldiz, K-POP dantza txapelketa ere izango dugu antzokian". K-POP delakoa jatorria Hego Korean duen pop musikaren azpi-generoa da, eta arrakasta handia dauka Asian eta Ipar Amerikan.

Eta hori guztia gutxi balitz, aurten internazionalizazio-programa baten barruan sartu dute UniEncounter ekimena. Ondorioz, sei ikasle etorriko dira Holandatik eta beste bi Danimarkatik. Gorkak dioenez, "Eibarko ekitaldiak nola funtziona-



Otsailaren 17an eta 18an izango da UniEncounter topaketa. Jarduera guztiak irekiak dira eta guztia doan da

tzen duen ikustera datoz, gugandik ikasteko eta ahal duten neurrian euren herrialdeetan ere UniEncounterak antolatzen diren asmoz".

Ikasleek antolatutako ekimena

Horrelako ekimenak antolatzen erreferente bihurtu da Eibar nazio mailan eta baita nazioarte mailan ere. "Ekimen honek hainbat adar ezberdin ditu eta guztiak bere osotasunean lantzen saiatzen gara. Zenbait puntu azaltzearen, guretzako garrantzitsuena da ikasleek eurek antolatzen dutela, nahiz eta sarrera librea izan publiko guztientzat, ikasle zein ikasle ez direnentzat. Baina ez da 'klaseko ariketa bat', hemen guztiak funtzionatu behar du (sareak, wifiak, kableak, azpiegiturak). Modu horretan asko ikasten da. Horrez gain, internazionalizazioarekin ere lotu nahi dugu. Kanpotik etorri zaizkigu galdezka, eta zergatik ez dugu gure esperientziatxoak aprobetxatuko guk ere atzerrira txango batzuk antolatzen eurei laguntzeko eta, aldi berean,

eurengandik ikasteko?. Bestalde, garrantzitsua da gazteentzat drogarik gabeko aisialdi esparruak sortzea. Eta teknologia berrieekin esperimintatzea, bai *serio*, bai jolasean. Apurka-apurka ekosistema bat sortzea eta indartzea da helburua".

Gogoratu nahi dute jarduera irekia dela, edonor edozein unetan agertu daitekeela bertara eta guztia dela doan. LAN PARTYan parte hartzerako doazenek gaua bertan pasako dute, eta, beraz, afaria ordaintzeko 10 euroko kuota jarri dute. Baina jolastera edo ikustera joatea doan da.

UniEncounterak antolatzen diren UNI osoaren laguntza izaten dute, UNI Eibar-Ermua ikastetxearena eta baita Hezkuntza Esparruarena ere. Bestalde, Eibarko Udala eta Euskaltel Fundazioa dira babesle nagusiak.

Informazio gehiago



Eleskyren kontzertua izango da UNiko antzokian, eta ondoren Alex Robleñok Koreara egin zuen bidaiaren inguruko dokumentala

Emaitza bikainak lortu zituzten Deporreko pilotariek azken jardunaldian

Sei partidutik bost irabazita, gure herriko afizionatuen mailako pilotariak euren multzoetan ondo kokatuta daude hurrengo faseetarako aurrera egiteko aukera eskura dutela. Horrela, eskuz binakako Udaberri txapelketaren barruan Narvaiza-Agirresarobe bikoteak Aretxabaletakoen aurrean lortutako garaipen bikainak (amaiera zirraragarria izan zuen partidu ikusgarria eskaini zuten) bigarren lagatzen ditu multzoan, atzetik datozengandik gehiago urrunduz. Infantil mailako Del Rey-Gil (18-4) eta Amillategi-Varona (7-18) bikoteak erraz nagusitu ziren Astelenan eta Azkoitian, hurrenez hurren, jokatutako partiduetan. Kadete mai-

lan, Azpilikueta-Gisasola bikoteak Tolosan irabazi bazuen ere, Araolaza-Urkiagak ezin izan zuen gauza bera egin eta gaur Oñatin irabazten saiatu beharko da. Azkenik, paletan ere nagusi izan ziren eibartarrak: Astelenako jaialdiari amaiera eman zion neurketan, Soria eta Ginea 25-16 gailendu zitzaizen igeldotarrei.

Astelenan gaur 18:15etik aurrera izango den jaialdia Eibarko Pilota Eskolako arteko partidurekin hasiko da. Jarraian, Gipuzkoako Errendimendu Txapelketaren barruan, Amillategi-Varona infantil mailako bikoteak Oñatiko ordezkariek izango ditu aurrez aurre. Amaitzeko, Udaberri Torneoaren barruan, Azkargorta-Conde senior



Araolaza-Urkiaga kadeteen bikotea.

mailako bikoteak eta Donostiako Huegun-Sorondok nor baino nor jardungo dute.



Alaitz Ibarrola waterpolista, Urbateko harrobitik goi mailara igo den azkena

Txilen egindako ikasketa aldi batetik bueltatu ondoren, Alaitz Ibarrola Urbat Urkotronik-eko bolla izandakoak Leioarekin fitxatu du goi mailan jokatzeko, aurretik Miren Urizar eibartarrak zabalduetako bidetik. Aurreko zapatuan egin zuen debuta Ibarrolak, Bartzelonan Sant

Eulaliaren aurka jokatutako partiduan. Urbat-eko arduradunek “nazio ikuspegia duen beste kirolari bat trebatu izanaren harrotasunez” zortea opa diote Alaitzi etapa berrirako, “gure kirolariak maila horretan ere errendimendua eskaini dezakeela ziur gaudelako”.

Eibar Rugby Taldeak Durango hartuko du bihar Unben

Euskadiko Erregional Mailan jokatzen duen gizonzkoen senior mailako lehen taldeak Durango RT-ren aurka jokatuko du bihar arratsaldean Unben, 16:00etan hasiko den partiduan. Ohorezko mailako partidu hori bigarren faseko bosgarrena izango da eta eibartarrak bigarren garaipena eskuratzen ahaleginduko dira. Aukera ere aproposa izan daiteke, durangarrak ere fase honetan partidu bat irabazi dutelako eta eurena delako atzetik duten talde bakarra. Aurreko asteburuan hobekuntza handia erakutsi zuen Eibarko taldeak bere jokoan, Domiberia Riojari Logroñon 13-38 irabazita, eta gertu ditu beste hainbat talde sailkapenean.

Ipuruako anexoak Futbol 7 PCko Liga Nazionalaren bi jardunaldi hartuko ditu

Garun-paralisia eta hartutako garun-kaltea dutenekin osatutako zortzi taldek hartzen dute parte liga horretan, eta Eibar da euskal ordezkari bakarra. Zapatuan eta domekan jokatuko diren lehiaketa horretako 3. eta 4. jardunaldietan



Hercules Paralinpikoa eta Fundacion 2.a izango dituzte aurkari eibartarrek. Aurretik, Castelldefel-sen jokatuako lehenengoko bietan, talde armaginak erraz irabazi zituen bere partiduak. SD Eibar-ekin batera, Levante, Extremadurako Federazioa, Amdda, Disport, Fundación 2., Hercules Paralinpikoa eta Tenerife dira parte-hartzaileak.

Garun Paralisia eta Hartutako Kalte Zerebrala duten Langileen Kirolen Espainiako Federazioak antolatutako Liga Nazional honen lehen fasea martxoan amaituko da, Madrilén, beste hiru partidu jokatuta; horrela, parte hartuko duten zortzi taldeek elkarren aurka jokatuko dute. Talde guztiek apirilean egingo dute hitzordua Naval Moral de la Matan Play Off-a jokatzeko: lehen faseko lehen lau sailkatuek finalerdiak eta finala jokatuko dituzte, eta beste laurek bosgarren postutik zortzigarreneakoa erabakiko dute.



Aitor Hernandezek sei garaipen eta 14 podio lortu ditu azken denboraldian

Ermua Innpulso taldeko txirrindulariak sei garaipenekin amaitu du azken ziklo-kros denboraldia eta, aurreko urteetakoei jarraituz, nagusi izan da euskal egutegian, Euskal Txirrindularitza Federazioko Challengeak erakusten duen bezala. Aurtengo garaipenekin Ermuko txirrindulariak 131 garaipen eskuratu ditu dagoeneko bere kirol ibilbidean. Gainera, nazioarteko maila zuten jokatutako lau lasterketetan hamar onenen artean sailkatu da.

Eibar FT-Cartagena partiduko puntuak balio handikoak izango dira

Mendizorrotzan azken jardunaldian galdutako partiduak Eibar FT igoera zuzena ematen duten sailkapeneko lehenengo bi postuetatik atera du Garitanoren taldea. Orain puntu gutxitan daude mailako talde indartsuenak eta puntuak garrantzi handiagoa dioaz hartzen bigarren itzulia hastearekin batera. Domekan Eibar FT-k Cartagena hartuko du Ipuruan, 18:30ean hasiko den norgehiagokan. Aurkari zail horren ondoren, armaginek Lugon jokatuko dute hilaren 18an, zapatuan, 16:15ean. Eta hilabete honetako

azkena barixakuan izango dute eibartarrek, 24an Villarreal B hartzeko Ipuruan 21:00etatik aurrera. Behin martxoan sartuta, Tenerifera egingo dute bisita, ondoren Burgos hartuko dute Ipuruan, jarraian Mirandes bisitatuko dute Anduvan eta, hilabetea amaitzeko, Andorra jasoko dute Ipuruan.

4 partiduko pack-a

Eibarrek 4 partiduko pack bat atera du, otsailean eta martxoan Ipuruan jokatuko diren ligako partiduetarako 60 euroko prezioarekin. Promo-

zio horretan parte hartzen dutenek abonatuaren prezioan lortuko dituzte sarrerak eta lehenetasuna izango dute abonatu gisa alta emateko. Promozio horretako partiduak Eibarrek Cartagena, Villarreal B, Burgos eta Andorraren aurka jokatuko dituenak dira. Pack hori eskuratzen dutenek txartel bat jasoko dute, partidu horietara sartzeko. Sarrerak Mendebaldeko Tribunari dagozkie. Bestalde, klubak denboraldi honetako hirugarren ekipazioaren edizio mugatua jarri du salgai aste honetan.

“Alaitasuna eta samurtasuna oinarritzkoak dira norberaren ongizaterako”

MANEX BERISTAIN • Barreterapeuta



Manex Beristain barreterapeutak bi barreterapia saio eskainiko ditu martxoan ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu 11). Lehenengo, martxoaren 2koa, helduentzako izango da, eta martxoaren 25ean egingo den bigarren saioan familiek har dezakete parte (6-12 urte bitarteko seme-alabak dituztenek). Lehen saioan otsailaren 21era arte eman ahalko da izena eta 5 euro balio du (doan ...eta kitto!ko bazkide eta berbalagunentzat).

Manex Beristain azpeitiarra barreterapeuta da. Irakaslea zen lehen, baina bikotekidearen heriotzaren ondorioz, barreterapia munduan sartu zen. Dolu-prozesua eginda, "heriotzak bizitzan kokatu" zuela dio.

ditugun tresnak jolasa (banaka, binaka, taldean), sentsazio desberdinak iradokitzen dizkiguten erritmo desberdineko musika eta barrea izango dira.

Laster Eibarren izango zaitugu barreterapiako bi saio eskaintzen. Zer landuko da bertan?

Bi tailer izango dira eta oinarrian alaitasuna, samurtasuna eta sormena izango dute. Aspektu horiek barreterapiaren metodoaren bidez landuko ditugu. Barreterapia, hitzak esaten duen bezala, terapia mota bat da. Egitura bat dauka, hau da, atal desberdinak ditu eta saioak oso ondo pentsatuta daude, helburu konkretuak dituzte. Etorriko direnei egokituta egongo dira. Kasu honetan, martxoaren 2an helduentzako tailerra izango da (16 urtetik gorakoentzat); eta martxoaren 25ekoa familientzako diseinatuta egongo da. **Zer bilatzen da tailer horien bidez? Zer espero dezakegu?**

Lanketa konpartitua egingo dugu. Bi kontzeptutan oinarritutako gara: alaitasunarekin konektatzea eta samurtasunarekin konektatzea. Norberaren ongizaterako, barne bakerako edo barne indarrerako oso kontzeptu inportanteak dira. Horretarako erabiliko





“Barrea gero eta gehiago entrenatu, orduan eta errazago ateratzen zaigu”

“Alaitasuna gure barruan modu iraunkor batean eraiki dezakegun sentrazioa edo tresna da”

Derrigorrezkoa da, beraz, barre egitea?

Ez da derrigorrezkoa barre egitea. Hori esaten dugunean jendea asko lasaitzen da. Nahiz eta mundu guztia barrez lehertzen egon, momentu konkretu batean barre egiteko gogorik ez daukadala onartzea, hori kriston lanketa da. Orduan norberak juizioak edo epaiketak alde batera lagatzen ditu eta besteen barreekin disfrutatzen hasten da. Eta hor seguraski konektatuko du bere barrearekin. Barrea, gorputzeko muskulo bat den heinean, entrenatu egiten da; gero eta gehiago entrenatu, orduan eta errazago ateratzen zaigu, eta orduan eta prestutasun handiagoa izango dugu gauza txikiekin barre egiteko.

Alaitasuna eta samurtasuna aipatzen dituzu behin eta berriro tailerrei buruz berba egiten duzunean.

Barreterapia hitzak pisu handiegia dauka eta, horregatik, alaitasun eta samurtasun tailerra deitzea gustatzen zait. Lehen tailerra izango denez, nahiko basikoa izango da, baina helburua bada sakontasun maila batera ailegatzea. Ni ez nago jendea distrakitze (horretarako badaude beste leku batzuk). Tailerraren bidez oinarri batzuk eta gutxieneko sakontasuna lortzea da nire helburua. Zoriontasunaren eta alaitasunaren artean desberdintzea gustatzen zait. Gizarte honetan zoriontasunerantz joateko hezi gaituzte. Nik alaitasuna deskubritu dut eta zerbait iraunkor bezala ikusten dut.

Kanpamentu base moduko bat eraiki dut momentu zailetan horra joateko, bake tenplu txiki horretara joateko, alegia. Zoriontasuna, berriz, beste gauza bat da. Lagun batekin pote bat hartzen zorionsua naiz, baina momentu horiek difuminatu egiten dira. Alaitasuna gehiago da gure barruan modu iraunkor batean eraiki dezakegun sentrazio bat, tresna bat. Une zorionsu asko biziko ditugu tailerretan, baina funtsean alaitasunaren tenplua eraikitzen joango gara.

Gaurko gizarteak ez du asko laguntzen alaitasunaren tenplu hori eraikitzen, ezta?

Harriz harri eraikitzen da. Niri bizitza ez dit aldatu, baina bizitzarekiko jarrera aldatu dit. Bizitzak berdin-berdin jarraituko du kolpeak ematen (gaixotasun moduan edo espero ez dudana notizia moduan), baina horren aurrean beste tresna batzuk izango ditugu. Niri asko lagundu dit gauzak soltatzeko, espektatibak pila bat jaisten... Erakutsi dit bizitza erraz bizitzen. Saioetan egiten ditugun dinamikak kontrastezko dinamikak dira (nola sentitzen garen jakiteko, barruko amorrua ateratzeko...), samurtasun-dinamika bat sartzen dugu, gero barruko zoro hori ateratzen dugu, meditazioa pasatzen gara... Kontraste eta erritmo handiko tailerra da. Jakinmin handia daukaten pertsonentzako tailerrak direla esango nuke.

“Iruditzen zait Coliseoko publikoak denbora gutxi iraungo duela bere tokian eserita”

JOHAN CHEKA • Rock con Ñ



80. hamarkadan Espainiako rock eszenan garrantzitsuak izan ziren taldeetako kide batzuek sortu dute ‘Rock con Ñ’ taldea, eta Sangre Azul, Burning, Asfalto, Topo eta Craneo taldeetako kide ohiek famatuak egin zituzten abestiak ekarriko dituzte bihar, 19:00etan, Coliseo antzokira.

Johan Cheka da ‘La Ñ’-ren (horrela esaten dio berak taldeari) abeslaria. Chekak Craneo taldean egin zuen bere ibilbide gehiena eta azken urteotan Asfalto taldearen managerra izan da. Dena dela, noizean behin eszenatoki gainera igotzen zen abesteko beharra asetzeko asmoz eta, orain, proiektu honekin, berriz dabil dena ematen.

Publikoa eserlekuetan eseri ohi da Coliseo antzokian. Rock taldea izanik, tente jartzen saiatuko zarete?

Coliseo ezagutzen dut, Asfaltorekin egon ginelako orain dela urte batzuk. Toki ederra da eta musika-ekipoak oso soinu ona du. Eta bai, noski, uste dut publikoak denbora gutxi iraungo duela bere tokian eserita. Ni neu arduraturuko naiz eseri ez daitezten. Lehen abestitik sakatuko diet eta izerditan joango dira etxera.

Nola sortu zenuten ‘Rock con Ñ’ taldea?

Konfinamendu sasoiaren sortu genuen. Etxean asper-tuta geundenez, lagunaren artean berba gehiago egiten genuen eta behin, Juanjo Melero ‘Sangre azul’ taldeko gitarra-jolearekin sektorearen egoera kaskarrari buruz berbetan, pentsatu genuen konfinamendua amaitzerakoan geure buruari omenaldia eskaini behar geniola. Hau da, lagunak elkartzea eta kontzertua es-

kaintzea talde ezberdinen abestiak jotzeko. Orduan, beste talde batzuetako lagunei deitu genien eta taldea osatu genuen.

Nolako kontzertua izan zen?

Madriren jo genuen muga askorekin, pandemiaren ondorioz, baina Figaro antzokia bete genuen eta demaseko oihartzuna izan zuen. Jendeak irteteko eta gozatzeko gogoia zuen. Ikusleen artean Pablo Rodriguez managerra zegoen eta esan zigun proiektuari jarraipena eman behar geniola, rocka eta erreperitorio hori defendatu behar zuen talde bat falta zelako.

Eta harrezkero, gelditu barik ibili zarete!

‘Yo iba al Canciller’ bira hasi genuen (‘Canciller’ Madrilgo rockaren tenplua zen 80. hamarkadan) eta 32 kontzertu eskaini genituen 2022ko abendura arte. Toki handietan jo dugu (San Isidro jaietan, Bilboko Aste Nagusian...) eta abeslari ospetsuak igo dira gurekin eszenatoki gainera (Ramoncin, Aurora Beltran...), gure proiektuari babesa emanez. Oso pozik gaude! Gainera, publikoak asko gozatzen du. Baxu-joleak esaten duen bezala, “abesti hauekin hasi bagenuen harremana gure bikoteekin, nola ez dugu gozatuko horiek entzuten?”.

Talde ezberdinetako musikariak izanda, nolako izan da egokitze lana?



Euskal Herriko publikoa bereziki beroa dela esan digu Johan Cheka abeslariak. ROCKCONÑ

‘Rock con Ñ’ usadio zaharreko taldea da. Entseguetarako lokala dugu eta astero entseatzeko saiatzen gara. Orain, taldearen abesti propio bat sortzea da gure asmoa. Bestalde, zuzenekoetarako errepertorioa aukeratzeko zaila izan zen, baina abestiak modu demokratikoan hautatu genituen. Asmatu genuela uste dut, publikoak hasieratik amaierara arte abesten duelako eta ia ahots barik geratzen delako.

Hainbeste urteren ondoren, nola jarraitzen du bizirik musikaren garrak?

Rock and rollaren kontua da. Kide gehienak 60 urteren bueltan gaude eta eszenatokiko gainean kilometroak egin ditzakegu. Rocka odolean daramagu. Gero, eszenatikotik jaisten garenean, bizkarreko eta belauneko minak hasten zaizkigu (barreak).

Hasi zineten sasoiarekin alderatuz, asko aldatu da musikaren mundua?

Bai, guztiz. Arlo batzuetan hobera egin du. Adibidez, gure sasoiaren jartzen zizkiguten soinu-ekipoak oso eskasak ziren. Ez dakit nola publikoak ez zizkigun gauzak botatzen (barreak). Orain, ordea, ikus-entzunezkoak erabiltzen hasi gara, besteak beste. Zoragarria da eta lehen

“Gaur egun oso abiadura handian kontsumitzen dira gauzak eta ezinezkoa da ezertaz gozatzea edo arreta jartzea”

pentzazina zen. Lehen, teloa ere ez genuen eramaten! Bestalde, gauza batzuetan txarrera egin du egoerak. Adibidez, musikaren zabalkundea ez da existitzen. ‘La Ñ’-k abesti bat sortzen badu, ez da inon nabarmenduko. Hau da, ez da orain dela urte asko sortu genituen abestiak bezain ezaguna izango. Lehen musika entzun egiten genuen. Diskoa erosi eta buruz ikasten zenuen, irratan mila programa zeuden, telebistan Barricada edo Leño bezalako taldea ikusi zenitzakeen... Orain ez dago horrelako ezer. Pentsa, TikTok plataforman kanala zabaldu berri dugu! (barreak) Gaur egun, sare sozialetan oso abiadura handian kontsumitzen dira gauzak eta ezinezkoa da ezertaz gozatzea edo arreta jartzea.



M8-rako koreografia ikasteko bi saio egingo dira

Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko asmoz, Kaxa mugimendu eta sormen gunean “Kateak apurzen” izeneko 15 minutuko dantza pieza prestatu dute, martxoaren 4an (zapatua), 13:15ean, Untzagan dantzatzeko. Asmoa egun horretan ahalik eta jende gehien batzea litzateke, denek elkarrekin dantzatzeko. Hori dela eta, jendeak koreografia ikasi ahal izateko, bi entsegu ireki antolatu dituzte: lehena asteburu honetan, domekan, egingo da, 12:30etik 13:30era, eta bigarrena martxoaren 3an, 19:00etatik 20:00etara. Biak izango dira Errebal Plazan eta jendea parte hartzera animatu nahi dute. Kaxa-ko Marta Prolen berbetan, “emakume jaiotzeak zer suposatzen duen irudikatzen hasten gara. Estereotipoek eta presio sozialengatik kateatuta. Kate horiek hautsi eta elkarrekin esnatu nahi dugu. Ahizpatasuna. Amaieran, akelarre bat irudikatzen dugu, emakumeen eskubideak defendatzeko borrokatu zuten emakume guztien omenez. Eta elkarrekin amaitzen dugu dantzan”. Dantza ikasteko bi saio horietaz gain, tutoriala grabatu dute bideoan eta YouTubeko beraien kanalean ikusgai ipini dute koreografia (<https://youtu.be/F0lklDA4crg>).

Miren Agur Meabe egongo da Harixa Emoten saioan



Idazle lekeitiarraren “Begiak zerumugan” liburua irakurri dute euskarazko irakurketa-klubeko irakurleek eta tertulian jardungo dute, Miren Agur Meaberekin batera, poema-liburu horren gainean. Ainhoa Aldazabalek gidatuko du datorren martitzeneko saioa, 19:00etatik aurrera Portaleko 3. batzartokian.



“Hasiera berri bat” liburua aurkeztuko dute eguaztenean

Eibarko Helduen Eskolak antolatuta, “Hasiera berri bat” liburuaren aurkezpena egingo da eguaztenean Armeria Eskolan, 11:00etan, interesa duen edozeinentzat ateak zabalik izango den ekitaldian. Mikel Garcia Idiakenez Argiako kazetariak Senegaldik Bilbora Pape Niang-ek egindako migrazioaren barne-bidaia kontatzen du liburuan, senegaldarraren bizipen eta gogoetak bertan bilduta. Aurkezpena liburuaren egileak berak eta kontatzen den istorioaren protagonistak, Pape Niang-ek (Inor ez da ilegala elkarte / Bilboko Mbolo Moye Doole elkarte) egingo dute.



Torrekuan izango da gaur Barixakuak Jolasian ekimena

Aurreko barixakuan Txaltxa Zelaiko harmaila inguruan egin ziren Barixakuak Jolasianeko jolasak, eta gaur Torrekuako parkeak hartuko ditu. Betiko moduan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara egingo dira 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, lau begiraleren laguntzarekin eta doan. Hurrengo asteburuan, aratosteak direla-eta, ez da jolasik egingo, eta ikasturteko honetako azkenak, beraz, otsailaren 24an egingo dira, Urkizuko parkean.



Martitzenean inauguratuko dira Antzerki Jardunaldiak

Datorren astean, martitzenean hasiko dira 46. Eibarko Antzerki Jardunaldiak, 19:00etan Coliseo antzokian egingo den ekitaldiarekin. Bertan Maria Adanez eta Pepon Nieto aktoreak arituko dira berbetan, “Los papeles del teatro” gaiaren inguruan, Irene Hernando eibartarrak aurkeztuta egingo den hitzaldi-solasaldian. Hain zuzen ere, bi aktore horiek protagonista gisa dituen “Ay Carmela!” antzezlana zabalduko du aurtengo egitaraua, funtzio bikoitzarekin (eguzten eta egunean, 19:00etan, Coliseo antzokian). Sarrerak aldezturik zein egunean bertan erosi ahalko dira.



“Eibarko umien kuadernua” banatuko dute ikastetxeetan

Ego Ibarra batzordeak kaleratutako “Atxia motxia” Eibarko umeentzako koadernoak Eibarko historia jolasaren eta denborapasen bidez ezagutzeko aukera ematen du eta, batez ere, belaunaldien arteko transmisio-tresna gisa erabiltzeko sortu zuten lana: herriaren sorrera, Eibarko emakumeak, artistak, herriko mapa, txoriak, arbolak, sanblasaren errezeta, Eibarren egingako tresnak, erreka, eraikinak eta beste hainbat gauza batzen ditu. Horrez gain, herriko euskara umeei gerturatzeko ere oso egokia da.




Txirrindularitzari lotutako musika joko dute domekan

Eibarko Musika Bandak XIV. Udaberriko Kontzertua emango du domekan, 12:30ean, Coliseon. Urteroko martxan, txirrindularitzarekin lotutako piezak joko dituzte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen proben egutegiari hasiera emateko. Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan, “aurten ziklismoko hiru proba nagusiak jokatzen diren herrialdeetako (Frantzia, Italia eta Espainiako) musika joko dugu eta kantu bereizgarri batzuk aukeratu ditugu: ‘Funiculí funicullá’, Ravelen boleroa eta ‘Camino real’ obra potentea, besteak beste”.


Argazkilaritza ikastaroa eta Eguen Zuri lehiaketa Kulturean

Arrate Kultur Elkarteak Oinarrizko Argazkilaritza Ikastaroa antolatuta du, data berriekin: otsailaren 27tik martxoaren 15era bitartean izango dira saioak, astelehen eta eguztenetan, 19:00etatik 21:00etara, eta Jose Luis Irigoienek emango ditu. Izena emateko 638 284 912 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke (30 euro balio du bazkideentzat eta 35 euro bazkide ez direnentzat). Horrez gain, Eguen Zuri argazki lehiaketaren edizio berria egingo da. Nahi duten guztiek har dezakete parte, Aratosteetako argazkiekin, eta onenentzat sariak egongo dira. Lanak bidaltzeko azken eguna martxoaren 12a izango da (eguenzuri2023@gmail.com).




ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		9						3
						6		8 2
	5	7	3	1				4
		6	1		5			
		3					6	
			4		3	2		
6				3	1	4	9	
4	3		7					
9						5		



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		4	9					3	1	
						8				
	1			3				7	6	
2	6	3						8		
			1					5		
	5							3	4	2
5	8			6				1		
				5						
1	9							7	2	

S U D O K U

L A B I R I N T O A



Otsailak 10/16

BARIXAKUA 10

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Doan. Torrekuako parkea.

ZIENTZIA TAILERRAK

17:00/19:00 Emakume zientzialariei buruzko tailerrak, (8-12 urtekoak). Itzamna akademiako eskutik. Errebal Plaza.

ZAPATUA 11

ARATOSTEAK

08:30 Koko-dantzak. Errebal.

09:00/15:00 Koko-eskea eta dantzak, Mandiola eta Gorosta auzoetako baserrietan.

19:00 Koko-mokoak elkartu eta dantzak. Errebal. Kalejira, Mauxitxarekin: Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton, Plaza Barria, Errebal Plazaia.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

MUSIKA

19:00 Rock con Ñ taldea. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 12

AZOKA

11:00/15:00 Bigarren eskuko arropa azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

MUSIKA

12:00 Udaberriko kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Coliseo.

DANTZA

12:00/13:00 Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 4an Untzagan dantzatuko den koreografia ikasteko saio irekia, Kaxa-ren eskutik. Errebal Plaza.

ASTELEHENA 13

ZAPOREAK ERRONKA

19:00 Debabarreneko Zaporeak Erronkaren aurkezpena. Untzagako jubilatutako etxea.

MARTITZENA 14

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Miren Agur Meaberen "Begiak zerumugan". Portalea.

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Los papeles del teatro" solasaldia, María Adánz eta Pepón Nieto. Aurkezlea: Irene Hernando. Coliseo.

EGUAZTENA 15

LIBURU AURKEZPENA

11:00 Hasiera berri bat" liburuen aurkezpena, Pape Niang eta Mikel García Idiakezen eskutik. Armeria Eskola.

MENDEBALDEKO SAHARA

18:30 "Giza eskubideak Mendebaldeko Saharan. Ahaztutako auzi bat". Ikus-entzunezkoa, dokumentala, liburu aurkezpenak eta solasaldia. Kulturala.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Ay Carmela!" (Producciones Faraute&Pentación). 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 16

EGUEN ZURI

15:15 Eskoletako taldeen kalejira.

17:00 Kalejira, Jainaga eta Narbaizarekin. Urkizutik Untzagara.

17:00 Erromeria, Lisker taldearekin.

17:00/19:00 Umeendako tailerrak, Astixarekin. Errebal Plaza.



ARATOSTEAK AMAÑAN

15:30 Aratosteetako desfilea, Amañako eskolarekin batera.

18:00 Kontzentrazioa auzoan, txorizo-pintxoak, musika, DJ-arekin. Amaña es la Caña.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Ay Carmela!" (Producciones Faraute&Pentación). 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 19ra arte:

- "ERREFUXIATU SAHARAUJEN KANPAMENDUAKI" Jose Luis Irigienaren argazkiak. (Topaleku).
- "ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBARREN II" Manuel Zabalaren maketak. (Armagintzaren Museoa).
- "BEARDAN BEZELA (GEHIENETAN)" La Taller grabatu-eskola (Portalea).

Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN." (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

10ean (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

19:00 / Herriko Antzokia

"Hobe ixilik!"

12an (DOMEKA)

KONTZERTUA

12:30 / Aita Agirre

Kulturgunea

Kilimak

ANTZERKIA

16:30 / Herriko Antzokia

"Futbolariak eta Printzesak"

ERMUA

10ean (BARIXAKUA)

KONTZERTUA

20:30 / Ermua Antzokia

Corizonas

DEBA

10ean (BARIXAKUA)

KONTZERTUA

22:00 / Burugorri Aretoa

Aitor Huergo

11n (ZAPATUA)

KONTZERTUA

22:00 / Gaztetxea

Pleura eta Lukiek

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **11n:** 22:30
- **12an:** 20:00
- **13an:** 20:30

“Una herencia de muerte”
KOMEDIA



2022/Erresuma Batua/91'
Zuzendaria: Dean Craig
Aktoreak: Toni Collette,
Anna Faris, Kathleen Turner
Familia barruko gorabeherak

2 ARETOA

- **11n:** 19:30, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 20:30

“Decision to leave”
DRAMA



2022/Korea/138'
Zuzendaria: Park Chan-wook
Aktoreak: Tang Mei, Park Hae-il,
Park Yong-woo
Intriga / Erromantzea / Hilketa

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (1 Aret.), 19:45 (1)
- **12an:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **13an:** 20:30

“Llaman a la puerta”
AKZIOA



2023/AEB/100'
Zuzendaria: Night Shyamalan
Aktoreak: Dave Bautista,
Jonathan Groff, Ben Aldridge
Beldurra / Munduaren akabera

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (2 Aret.)
- **12an:** 17:00

“Asterix y Obelix: el reino”
ABENTURA



2023/AEB/114'
Zuzendaria: Guillaume Canet
Komedia / Txinan girotuta

FUNEUSKADI
Funeraria mugikorra

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugikorra

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Comunitario
Bilbao Aitzeta

TANATORIO ERREKALDORIO
(EGOIBAR)

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORAEI ETAN LANTARE
NATURALETA
LEBORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JON!!!**
Gure foballarixak eguaztenian 7 urte bete zittuan! Musu pillua ama, aitta, aitxita, amama eta zure arreba Claudiaren partez.



Zorionak, **LIBE!**
Gaur 9 urte! Musu haundi bat famelixaren partez. Eta beste potolo bat Anerren partez!



Zorionak, **HAIZEA,**
gaur 3 urtetxo betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat aitxita eta amamaren partez.



Zorionak, **HELENA!**
Astelehenian 10 urte beteko dozuz-eta. Primeran ospatu! Musu haundi bat etzekuen eta Martinen partez.



Zorionak, **MARIO**
Alvarez, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**
Biribai, atzo 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **PAULE!**
Hillaren 8xan 4 urte bete zenduaz-eta! Musu haundi-haundi bat aitxita, amama, tio eta tiaren partez!



Zorionak, **OIER!!!**
Bixar 10 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **OIER** (martitzenian 10 urte beteko dozuz) eta amatxo **MARIJOSE** (eguenian urtiak egingo dozuz). Musu haundi bana famelixa eta lagun partez.



Otsailian etzeko akuario guztiak urtiak betetzen dittue: **XAREK** 3an, **TIAK** 9xan eta **SUHAR**-ek 16xan. Zorionak, hirukote!!

www.aldatze.eus
aldatze  **ALDATZE DENOK GARA**
MARIKULA -IZEN EMATEA-
otsailaren 13tik 24ra 

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Eibartar gazte batek baserria erosiko luke Eibarren. Edozein egoeratan dagoelarik, ikuste-ko prest dago. 688631803.
- Pisua salgai Urkin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Bista zabaleko 2 balkoi. Igogailua 0 kotatik. Garaje itxia aukeran eraikin berean. 690031734.

1.2. Errentan

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Eibarren (bestela, Ermuan, Elgoibarren edo Sorailuzen). 672860969.

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Eibar inguruan. 688642761.
- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613432184.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 685724861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia erizain bezala. 613744564.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia handiko neska eskaintzen da. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasun-koa. Mendekotasun-egoeran daudenentzako Arreta teknikari tituluarekin. 699473761
- Gizonezkoa eskaintzen da baserrian lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643396874.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 674457727.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631319476.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 602051567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 679828576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631489919. Tatiana.
- Mutila eskaintzen da elektrizista bezala, obretan jarduteko eta sukaldari moduan. 631640054.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602842219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioa eginda. 631425686.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta LH klase partikularrak emateko. 688628235.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 632611432.

4.2. Langile bila

- Ileapaintzailea behar da jor-nada osorako. 619928881.
- Dendaria behar da modadenda batean. Arratsaldeko ordutegian. Laga curriculumua Closet dendan (Estaziño, 10).
- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsaldez, martitzenetik zapatura. Bidali curriculumua: eibartienda@gmail.com.
- Ileapaindegi batean esteticien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientziaduna behar dute. 686256940 (whatsapp).

- Gizon nagusia zaintzeko pertsona behar dugu, etxean biziko dena. Zertifikatua egotea derrigorrezkoa da. 620888320.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Mekanizazio Erdi mailako Heziketa Zikloa egiten diharduen ikasleak irakasle partikularra behar du. 656702244. Rosi.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Vals, tango, swing... erritmoak. 400 euro. 943752480.
- Patinete elektrikoa, kaskoa eta euritako sira salgai. Estrenatzeko. 695752700..

6.3. Galdu/Aurkitu

- Martitzenean Urkizu parkean ume-motxila grisa (eskola-liburuekin) galdu zen. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 618286985. Andoni.



osasun gida

Okulistak

 **Recalde**
 Clinica Oftalmológica
 Oftalmologi Klínika

•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

N.P.S. 204713

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

 **ELENA AIZPUN**
PODOLOGOIA

838200124
 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - I. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **IRIGO UNANUE ARTECHE**
www.irigounanue.com

- Merkataritza Taldeetako Aholkulari Sistemikoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ortologikoa
- Bokazio Orientatzailea

Unibisu Pasaia, 7
 472 682 133
info@irigounanue.com

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
 GOZIZ ETIA ARRATZALDEZ

Urki zu, 13 - behea
 Tel. 943206823 / 686859023

 **BIDEBARRIETA, 48**
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

 **PODOLOGOIA**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tñoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren 13tik 24ra



baikara

URKIZU

943 89 91 47



SAN ANDRES

943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI

943 10 72 35



AMAÑA

688 68 72 89

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK



Elkarrekin hazten

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 13TIK 24RA
www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKADI JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



EIBAR BHI

943 89 92 62

JARDINETAK, 3 B

www.eibarbhi.eus

DBH3, 4 + Batzilergoaki + ZIG



EIBAR BHI

943 89 92 21

ISASI, 37

www.eibarbhi.eus

DBH1, 2 + Gautenako gela erokora